

LEZON ORBEGOZO ISTEKO ZORIAN

Komunikabideek jada nahiko haizatu badute ere Aceros Corrugados S.A. ri dagokion auziari buruz, Lezoren etorkizunerako eta bertako biztanleentzako duen garrantzi eta eraginagatik, zenbait zertzelada ematen ditugu artikulu honetan.

Martxoaren bigarren hamabostaldian entpresako zuzendari-tzak iragartzen zuen hiruhilabeterako lan geldiketa teknikoa eta ordainen etenaldia aurkeztuko zituela ondorengo egunetan. Halaber behin behineko jereente bat izendatzen zuen eta sozietate jestiogile bat sortzeko asmoa agertzen (SORAC: bere baitan artzen ditu Orbegozo, Cerrajera eta Nervacero entpresa multzoak).

Altzairu arruntaren produkzioan birmoldaketa ezartzearen ondorio bat dugu hau. Dirudienez, egun haietan esaten zenez, areagotu egin zuten entpresaren larritasuna dolarraren erorketak eta arantzelen deuseztatzeak.

Orbegozoko lantegian 313 enplegatu dabil tza lanean. Azken urteetan salmentek beherakada bat ezagutu zuten 1.984 an salmenta/sarrerak 6.611 milioietakoak izan ziren, hau da, 1.983 koa baino % 7,4 gutxiago.

Gaur egun entpresak dituen zorrak 5 mila milioi pezetakoak omen dira. Eta langileei zor dizkienak, batz bestea, 140.000 pezeta dira langile bakoitzeko; guztira, beraz, 43.820.000 pezeta gutxi gora behera.(1)

Langileak kexu ziren jereentziak inongo berririk ematen ez zielako. Bestalde, lantegitik makineria eta materialerik eraman ez diezazkieten neurriak hartu dituzte.

Honezaz gain, eta ikusirik Zumarragako Orbegozo soilik aurrera ateratzeko bidegarritasuna proiektatzen ari zela, Lezokoa alde batera utziz e rabat, indar egin nahian ari dira Zumarragako langileen eskubide berdinak eduki-

tzeko lanpostuei dagokienez.

Era berean langileen asmoa da nola edo hala fabrika martxan iraun arastea, birmoldaketa burutuko den arte. Zeren geldirik dagokeen lantegi batek in-dar gutxi egin bait lezake aldakuntza gertatuko denean. Beraz, zerau proposatzen da: txandaka 20 egun edo hilabete bat lan egin eta beste bi hilabete lanik egin gabe gelditu.

Eta oraingoz hartan dira.

(1) Badirudi atzeraturiko lantsariak ordainduko zitzaizkien agintza jaso zu-tela langileek eta lehengo hilaren azkenaldean eskuratu ere eskuratu zituztela.

J. L. A.

